# Barkoxeko eliza

Pierre Topet (Etxahun Barkoxe)




**Etxahun Barkoxe**

*Instru en Entier*

Egün Bakoxen beita Libertitzeko besta
Jaun erretorak berak eman deikü süjeta
Bi berset kantatüko dütüt sonüarekin aldika
*Instru Chant*
Barkoxeko Eliza da eder den bastiza
Erretorak fitsatürik non den han jaunen plaza
Ez beitiroie haren ordrez praubeek hantik entzün meza
*Instru Chant*
Praube bat izan düzü jaun haien plazan sartü
Bi jaun hara jin eta hura hen konpaiñan baratü
Erretora süjet harez hüilan desesperatü
*Instru Chant*
Praube hura izan da zazpi erresumatan
Egün oroz meza entzün bi mila elizatan
Barkoxen bezala apezek ez tratatürik izan

*Instru en Entier*

Izan nüzü Loretan Jakan eta Erruman
Aita saintüan meza entzün kardinalen konpaiñan
Arropa txar ükena gatik nihork ez zeitan deus erran
*Instru chant*
Barkoxen neskatilak eginez pastoral bat
Ezin absolbitüz dira higatürik oski zolak
Eta haier so egitera jin zirenak orobat
*Instru chant*
Barkoxeko apezak oro dira manexak
Ez giniroa üken ahal Xiberoko seme bat
Praubeen eta aberatsen afable lizatin bat

*Instru en Entier*